



UPV/EHUKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA

AKADEMIKOAREN PLANA
IKERTZAILEEN JARDUN

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Aurkibidea

1. Jardun Akademikoaren Plana (JAPa): zer den (oinarrizko kontzeptuak eta nori eragiten dion)	3
2. JAParen eraginpeko irakasleen jarduera akademikoak	5
• 2.1 Arduraldi osoko irakasle iraunkorrak	6
• 2.2 Prestakuntza bidean dauden eta lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren irakasleak	7
3. Oinarrizko kontzeptuak:	8
• 3.1 Irakats ahalmen gordina (IAGd) , irakats ahalmen garbia (IAGb) eta JAP-IEE	9
• 3.2 Irakaskuntza enkargu erregularra (IEE) eta bere osagaiak	11
4. Kredituen aitortpena	12
• 4.1 JAP-IEE kalkulatzeko prozedura	13
• 4.2 JAParen behin-behineko egutegia (eskariak eta erreklamazioak egiteko epeak)	16
5. JAPean jasotako jarduerak	17
6. Irakasleen jarduerak bistaratzeko pantailak	18

1. Jardun Akademikoaren Plana (JAPa): zer den (oinarrizko kontzeptuak) eta nori eragiten dion

JAPean arautzen da UPV/EHUko arduraldi osoko irakasleen parte handi baten jarduna. Jasotzen du, kreditutan neurtuta, alde batetik, ohiko irakaskuntza (OI) eta oinarrizko gestio, prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa, eta, bestetik, ezohiko irakaskuntza (EI), ikerketa lan gehigarria (IKER) eta gestio lan gehigarria (G).

Bi irakasle multzo daude planaren eraginpean:

1. Arduraldi osoko irakasle iraunkorrak:

a) Irakasle funtzionarioak:

-Unibertsitateko Katedraduna (UK) eta Unibertsitate Eskolako Katedraduna (UEK)
- Unibertsitateko Irakasle Titularra (UIT) eta Unibertsitate Eskolako Irakasle Titularra (UEIT).

b) Lan kontratudun irakasle iraunkorrak:

- Irakasle osoa
- Irakasle *agregatuak*
- Unibertsitateko (UI) eta Unibertsitate Eskolako Irakasle (UEI) *lankide iraunkorrak*.

2. Prestakuntza bidean dauden eta lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren irakasleak:

- Irakasle *atxikiak*
- Unibertsitate Eskolako Irakasle (UEI) *lankide ez-iraunkorra*
-Egonkortasuna daukaten *lan kontratudun* irakasle *ez-iraunkorrak*
-*Irakasle-ikertzaileen* arloko errektoreordearekin *tesi edo akreditazio konpromisoa sinatua* eta indarrean daukaten lan kontratudun bitarteko irakasleak



1. Jardun Akademikoaren Plana (JAPa): nori eragiten dion

Beraz, hauek geratzen dira *JAPetik kanpo*:

- Arduraldi partzialeko irakasle iraunkorrak.
- Ordezkoak egiteko kontratatutako irakasleak, lanpostu hutsean ez daudenak.
- Arduraldi partzialeko irakasle kontratatuak.
- Lanpostu hutsean dauden irakasle kontratatuak, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearekin tesi edo akreditazio konpromisorik indarrean ez daukatenak.
- Ikertzaile doktore iraunkorrak. Berez badaude JAPean, iraunkorrak direlako, baina praktikan JAPean jarduerak kontuan hartzeko ezarritako mugak direla eta, ezinezkoa da haien irakats ahalmena 12 kreditu baino gutxiago izatea.
- Osakidetzari lotutako irakasleak



2. JAParen eraginpeko irakasle eta ikertzaileen jarduera akademikoak

JAParen eraginpeko **irakasle guztiek** beren jarduera akademiko guztien artean guztira 1.600na ordu bete behar dituzte, hau da, **irakasle bakoitzak 64 kreditu (IK)**.

Irakasle kreditu (IK)=jarduera batean emandako 25 ordu.

1.600 orduak modu diferentean banatzen dira arduraldi osoko irakasle iraunkorren kasuan eta prestakuntza bidean dauden eta lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren irakasleen kasuan.

2. JAParen eraginpeko irakasleen jarduera akademikoak

2.1 Arduraldi osoko irakasle iraunkorrak

ARDURALDI OSOKO IRAKASLE ETA IKERTZAILE IRAUNKORREN JARDUERA AKADEMIKOEN BANAKETA (1.600 ORDU= 64 KREDITU)		
JARDUERA	ORDUAK / IRAKASLE KREDITU	
OINARRIZKO GESTIOA	300 ORDU (12 IK)	
PRESTAKUNTZA ETA EGUNERATZEA	300 ORDU (12 IK)	
IRAKASKUNTZA, IKERKETA ETA GESTIO LAN GEHIGARRIAK (1.000 ORDU = 40 IK)	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA	250 ORDU (10 IK)
	IKERKETA GEHIGARRIA	350 ORDU GEHIENEZ (14 IK)
	IRAKASKUNTZA	400 ORDU (16 IK) ETA 750 ORDU (30 IK) BITARTEAN (30 IK)
	GESTIO LAN GEHIGARRIAK	GEHIENEZ 100 ORDU (4 IK)

2020/21 ikasturtetik aurrera, hau barne, beste minimo bat ezartzen da: irakasle eta ikertzaile guztiek gutxienez, beren irakats ahalmen garbiaren erdia (1/2 IAGb) ikasgelan, aurrez aurre, eman behar dute [OI1]. Gutxienerako hori, gainera, 2016/17tik JAPak jasotzen dituen 45 orduen minimoari gainjarri behar zaio.

2. JAParen eraginpeko irakasleen jarduera akademikoak

2.2 Arduraldi osoko irakasle iraunkorrak

PRESTAKUNTZA BIDEAN DAUDEN IRAKASLEEN JARDUERA AKADEMIKOEN BANAKETA (1.600 ORDU=64 KREDITU)		
JARDUERA MOTA	ORDUAK / IRAKASLE KREDITU	
OINARRIZKO GESTIOA	200 HORAS (8 IK)	
PRESTAKUNTZA ETA EGUNERATZEA	400 HORAS (16 IK)	
IRAKASKUNTZA, IKERKETA ETA GESTIO LAN GEHIGARRIAK (1.000 ORDU = 40 IK)	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA	250 HORAS (10 IK)
	IKERKETA GEHIGARRIA	GEHIENEZ 250 ORDU (10 IK)
	IRAKASKUNTZA	500 ORDU (20 IK) ETA 750 ORDU (30 IK) BITARTEAN
	GESTIO LAN GEHIGARRIAK	GEHIENEZ 50 ORDU (2 IK)

2020/21 ikasturtetik aurrera, hau barne, beste minimo bat ezartzen da: irakasle eta ikertzaile guztiek gutxienez, beren irakats ahalmen garbiaren erdia (1/2 IAGb) ikasgelan, aurrez aurre, eman behar dute [OI1]. Gutxienerako hori, gainera, 2016/17tik JAPak jasotzen dituen 45 orduen minimoari gainjarri behar zaio.

3. OINARRIZKO KONTZEPTUAK :

JAParen eraginpeko irakasleek bete beharreko 1.600 orduak (**64 IK**) betetzeari begira, kredituak zenbatzeko prozeduran kontzeptu hauek bereizi behar dira:

▪ Irakats ahalmena:

- Irakats Ahalmen Gordina (**IAGd**).
- Murrizketa Kargu (**Mur. Kargu**).
- Irakats Ahalmen Garbia (**IAGb**)
- Eman behar den irakaskuntza erregularra JAPeko emaitzak kontuan hartuta (**JAP-IEE**)

▪ Irakaskuntza Enkargu Erregularra (IEE):

- GAURen grabaturiko benetako irakaskuntza erregularra da (Ben-IEE):
 - Bistaratutako ikasturtean emandako (edo eman beharreko) irakaskuntza (13.1).
 - Bistaratutako ikasturtean kontuan hartutako baina **aurreko ikasturteei** dagokien **IEE** (tesiak, MALak eta abar)(13.2)

3. 1 IRAKATS AHALMEN GORDINA (IAGd) , IRAKATS AHALMEN GARBIA (IAGb) eta JAP-IEE

- **Irakats Ahalmen Gordinak (IAGd)** adierazten du zenbat kreditu eman behar dituen irakasle batek ohiko irakaskuntzan murrizpenik ez badauka (karguagatik, bajagatik eta abar) eta deskonturik ez badauka bestelako jarduerengatik.
- **Murrizketa (kargua edo bestelakoak)(M)**. Kontzeptu honetan datuok islatzen dira:
 - Zenbait *kargu akademiko* betetzeagatik IAGd-ri egiten zaion kreditu murrizpena .
 - Lizentziei dagokien kreditu murrizpena
 - Bajei dagokien kreditu murrizpena

Azpimarratu behar da hautatutako ikasturtea 2023/24 ikasturtea bada (hau da, oraindik planifikatzeko dagoena), murrizpenetatik bakarrik hartuko direla kontuan kargu akademikoei eta lizentziei dagozkienak. Oraingo ikasturtea edo aurreko bat hautatuz gero, gaixotasun baje murrizpena ere agertuko da.



3.1 IRAKATS AHALMEN GORDINA (IAGd) , IRAKATS AHALMEN GARBIA (IAGb) eta JAP-IEE

•**Irakats ahalmen garbia (IAGb)**. IAGd-ren eta kargu eta lizentziei dagozkien murrizpenen arteko diferentzia da hurrengo ikasturteaz ari bagara, eta IAGd-ren eta kargu/lizentzia/bajei dagozkien murrizpenen arteko diferentzia, oraingo ikasturteaz edo aurreko batez ari bagara.

•**Eman behar den irakaskuntza erregularra JAPeko emaitzak kontuan hartuta (JAP-IEE):**

JAPeko eranskin guztietako jarduerak baloratu eta gero irakasleak eman behar duen ohiko irakaskuntza

3.2. IRAKASKUNTZA ENKARGU ERREGULARRA (IEE) ETA BERE OSAGAIAK

• **GAUREn grabatutako irakaskuntza erregularra (Ben-IEE):** Irakasleek ikasturte horretan eman beharreko (edo emandako) ohiko irakaskuntza da, ikasturte horretan aitortzen diren aurreko lanak (tesiak, MALak, GRALak...) kontuan hartu ondoren (13. pantaila).

• **Bistaratutako ikasturtean emandako (edo eman beharreko) IEE** (13.1 pantaila)

Planifikatu beharreko ikasturterako (2023/24 ikasturterako) zutabe hau hutsik egongo da, irakaslan oraindik banatu barik dagoelako. Aurreko ikasturteetarako, berriz, irakasle bakoitzak esleituta izan zuen ohiko irakaskuntza ageri da zutabe honetan.

• **Aurreko ikasturteetan** egina den baina bistaratutako ikasturtean kontuan hartuko den **IEE** (tesiak, GRALak eta abar) (13.2 pantaila).

4. KREDITUEN AITORPENA

4.1 JAP-IEE kalkulatzeko prozedura

Lehendabizi IAGd kalkulatu da. Horretarako, hauek hartzen dira aintzat:

JARDUERA AKADEMIKOAK GUZTIRA (64 IK)

Lehenengo 34 kredituak: : Oinarrizko gestioa, prestakuntza eta eguneratzea, eta oinarrizko irakaskuntza eta ikerketa egiaztatuta eduki beharko dira. ((1)+(2)+(3) pantailak)

Gainerako 30 kredituei (4. pantaila) kenduko zaizkie hauetako bat, irakasleari gehien komeni zaiona:

- **4 kreditu** irakasle **doktoreei**.
- **8 kreditu seiurteko** bat daukatenei, bizia edo ez.
- **14 kreditu, apirilaren 20ko 14/2012 EDko** 6.4 artikuluan zehazten diren baldintzak **betetzen** dituzten irakasleei, funtzionarioak izan zein lan kontratudunak izan.

OHARRAK:

- **Lehenengo 34 IKak** egiaztatzen ez badira, irakats ahalmena ez da aldatuko, baina ezin izango da krediturik deskontatu ikerketa gehigarriagatik, gestio lan gehigarriengatik eta bestelako irakaskuntzagatik.
- **JAPean ezarritako gainerako 30 IKak** ikerketa gehigarriarekin, irakaskuntzarekin eta gestio lan gehigarriekin bete beharko dira.

4. KREDITUEN AITORPENA

4.1 JAP-IEE kalkulatzeko prozedura

IRAKATS AHALMEN GORDINA(IAGb) LABURPENA

JARDUN AKADEMIKOAREN PLANAREN ERAGINPEKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN IRAKATS ↓			AHALMEN GORDINA FIGURAREN ARABERA ↓			
			EDko 6.4 ARTIK. BALD. BETETZEN DITU	SEURTEKOA DAUKA (bizia edo ez)	DOKTOREA DA	AURREKO BAT ERE EZ
ARDURALDI OSOKO IRAUNKORRAK	FUNTZIONARIOAK	UNIBERTSATEKO KATEDRADUNAK	16 IK	22 IK	26 IK	30 IK
		UNIBERTSATE ESKOLAKO KATEDRADUNAK				
		UNIBERTSATEKO TITULARRAK				
		UNIBERTSATE ESKOLAKO TITULARRAK				
	LAN KONTRATUDUN FINKOAK	IRAKASLE OSOAK			24 IK	24 IK
		AGREGATUAK				
		UNIBERTSATEKO LANKIDE IRAUNKORRAK				
		UNIBERTSATE ESKOLAKO LANKIDE IRAUNKORRAK				
PRESTAKUNTZA BIDEAN DAUDEN ETA LANPOSTUEN ZERRENDAKO PLAZA BAT DIREN IRAKASLEAK	ATXIKIAK	24 IK	30 IK			
	UNIBERTSATEKO ALDI BATERAKO LANKIDEAK *					
	UNIBERTSATEKO BITARTEKO LAN KONTRATUDUNAK *					
	UNIBERTSATE ESKOLAKO ALDI BATERAKO LANKIDEAK*					
	UNIBERTSATE ESKOLAKO BITARTEKO LANKIDEAK*					

* Tesia egiteko edo akreditazioa lortzeko konpromisoa dute indarrean Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzarekin

• JAParen eraginpean ez dauden irakasle eta ikertzaileen IAGd (kredituak) = kontratu orduak x 3.

4. KREDITUEN AITORPENA

4.1 JAP-IEE kalkulatzeko prozedura

•Hona hemen gehienez deskonta daitekeen kreditu kopurua, jarduera gehigarriaren eta irakasle motaren arabera::

GEHIENEZ DESKONTA DAITEKEEN KREDITU KOPURUA, JARDUERAREN ETA IRAKASLE MOTAREN ARABERA	ARDURALDI OSOKO IRAKASLE IRAUNKORRAK	PRESTAKUNTZA BIDEAN DAUDEN ETA LANPOSTUEN ZERRENDAKO PLAZA BAT BETETZEN ARI DIREN IRAKASLEAK
IKERKETA LAN GEHIGARRIAK (I. eranskineko I. taula)	8 IK	6 IK
EZOHIKO IRAKASKUNTZA LANAK (II. eranskineko II. taula)	4 IK	2 IK
GESTIO LAN GEHIGARRIAK (II. eranskineko 3. Taula)	4 IK	2 IK

5.P

8.P

7.P

•Muga horietaz gain, beste hauek aplikatuko dira:

- Seiurtetik ez duten irakasle ez-doktoreek** gehienez **8 kreditu** deskontatu ahal izango dituzte.
- Irakasle doktoreek** gehienez **6 kreditu**.
- Seiurtekoa dutenek (bizia edo ez)** gehienez **4 kreditu**.
- 14/2012 EDko 6.4 artikuluko baldintzak** betetzen dituzten irakasleek gehienez **2 kreditu**.

•Irakaslanaren murrizpena dakarten kargu akademikoetan dauden irakasleen kasuan, JAParen bidez guztira lortutako kredituen eta kargu akademikoan egoteagatik lortutako kredituen batura gehienez izan ahalko da irakasleak kargu akademikorik gabe izango lukeen IAGd-ren $\frac{3}{4}$.

4. KREDITUEN AITORPENA

4.1 JAP-IEE kalkulatzeko prozedura

JAP-IEE, hau da, eman beharreko ohiko irakaskuntza BI HAUEN ARTETIK TXIKIENA IZANGO DA:

64-(1)-(2)-(3)-(4)-(11) non (11)= R+(5)+(7)+(8)
(gehienez IAGdren $\frac{3}{4}$), eta IAGb (IAGd-M)

OHARRAK

•Ikasturte bati esleitutako lanen kredituak ezin izango dira beste ikasturte batera pasatu.

•Besterik adierazi ezean, **kredituak bi ikasturte beranduago aitortuko dira**

Adibidea: 2023/2024 ikasturteko irakaskuntza planifikatzeko, 2022ko urrian aitortuko dira jarduerari dagozkien kredituak. Kreditu horiek aitortzeko, kontuan hartuko dira 2021/22 ikasturtean egindako jarduerak eta irakasle eta ikertzaileen sailkapena une horretan (2022ko urria).

•**Ikerketa edo hezkuntza proiektuei** eta lan zientifikoaren argitalpenari dagozkien kredituak aitortzeko **urte naturalak** hartuko dira kontuan.

Adibidez: 2023/2024 ikasturteko irakaskuntza planifikatzeko, 2022ko urrian aitortuko dira jarduerari dagozkien kredituak, kontuan hartuta 2021 urtean egindako guztia.

4. KREDITUEN AITORPENA

4.2 JAParen behin-behineko egutegia (eskariak eta erreklamazioak egiteko epeak)

Faseak	jarduera mota	Irakasle mota	Egin daitekeen eskari kopurua	Behin-behineko datak
TRAINERAn aurkeztu beharreko eskariak aurkeztea	IKER1 -JCR, SCOPUS argitalpenak	- Seiurtetik gabeko irakasle ez-doktoreak	BAKARRA	Otsaileko lehen hamabostaldia
	EI10 – Euskararekin zerikusia duten jarduerak – Euskarazko Berezko Tituluetan euskaraz emandako irakaskuntza.	- JAParen eraginpeko irakasle guztiek	NAHI BESTE	
	EI11 – Euskarazko argitalpenak.	- JAParen eraginpeko irakasle guztiek	NAHI BESTE	
	EI12 – Genero ikuspegia unibertsitateko irakaskuntzan txertatzeko eskuliburuak (ISBN edo ISSNdunak) argitaratzea.	- JAParen eraginpeko irakasle guztiek	NAHI BESTE	
	Akreditazio hauetako bat lortzea: irakasle atxikiarena, irakasle laguntzaile doktorearena, irakasle agregatuarena, irakasle kontratatu doktorearena edo unibertsitateko irakasle titularrena.	-Prestakuntza bidean dauden eta lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren lan kontratudun irakasleak.	BAKARRA	
Erabakia				
ALEGAZIOAK EGITEKO EPEA				Hilabetea, erabakiaren datatik hasita
JAPa ikusgai		- JAParen eraginpeko irakasle guztiek		Martxoaren erdialdea
ALEGAZIOAK EGITEKO EPEA				Hilabetea, erabakiaren datatik hasita

5. JAPean jasotako jarduerak

1. TAULA: KREDITUAK LORTZEA IKERKETA LAN GEHIGARRIEN BIDEZ

Lan hauen bidez guztira lor daitekeen gehieneko kreditu kopurua: 8 IK arduraldi osoko irakasle iraunkorrentzat eta 6 IK prestakuntza bidean dauden lan kontratudun irakasleentzat.

2. TAULA: KREDITUAK LORTZEA EZOHICO IRAKASKUNTZA LANEN BIDEZ (BESTELAKO IRAKASKUNTZA LANAK)

Lan hauen bidez guztira lor daitekeen gehieneko kreditu kopurua: 4 IK arduraldi osoko irakasle iraunkorrentzat eta 2 IK prestakuntza bidean dauden lan kontratudun irakasleentzat.

3. TAULA: KREDITUAK LORTZEA GESTIOARI LOTUTAKO LANEN BIDEZ (GESTIO LAN GEHIGARRIAK)

Lan hauen bidez guztira lor daitekeen gehieneko kreditu kopurua: 4 IK arduraldi osoko irakasle iraunkorrentzat eta 2 IK prestakuntza bidean dauden lan kontratudun irakasleentzat.

4. TAULA: KREDITUAK LORTZEA IRAKASKUNTZA EZ OHIKORAKO JARDUEREN BIDEZ

Ohiko irakaskuntzan irakatsi beharreko gutxieneko kredituak: 12 IK arduraldi osoko irakasle iraunkorrentzat eta 18 IK prestakuntza bidean dauden lan kontratudun irakasleentzat.

2020/21 ikasturtetik aurrera, hau barne, beste minimo bat ezartzen da: irakasle eta ikertzaile guztiek gutxienez, beren irakats ahalmen garbiaren erdia (1/2 IAGb) ikasgelan, aurrez aurre, eman behar dute [OI1]. Gutxieneko hori, gainera, 2016/17tik JAPak jasotzen dituen 45 orduen minimoari gainjarri behar zaio.

[\(Esteka honetan eskuratu ahal duzu eguneratutako araudia\)](#)

6. IRAKASLEEN JARDUERAK BISTARATZEKO PANTAILAK

6.1 ARDURALDI OSOKO IRAKASLE IRAUNKORREN PANTAILA

IRAKASLEAREN DATU PERTSONALAK	
Kredituak egozteko urtea	
Deiturak eta izena	
NANa	
kategoria	
irakaskuntza-gaitasun gordina (IAGd)	
Kargu akademikoaren murrizpena/lizentzia/baja (R)	
Irakaskuntza-gaitasun netoa (IAGb)	
Saila	
Ikastegia	
JARDUEREN BANAKETA JARDUN AKADEMIKORAKO PLANAREN (JAP) ARABERA	
OINARRIZKO GESTIOA	
[1]	Oinarrizko gestioa
PRESTAKUNTZA ETA EGUNERATZEA	
[2]	Prestakuntza eta eguneratzea
OINARRIZKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA	
[3]	Oinarrizko irakaskuntza eta ikerkuntza
IKERKETA GEHIAGARRIA	
[4]	14/2012 EDko baldintzak, seiurtekoa edo doktoraduna izatea
[5.1]	IKER1 JCR, SCOPUS argitalpenak
[5.2]	IKER2 Ikerkuntzarako proiektu, talde eta kontratuak...
[5.5]	IKER5 Tesia inskribatu izana edo akreditazio konpromiso bat indarrean edukitzea
[5]	Bestelako ikerketa jarduen guztira [5.1]+[5.2]+...+[5.5] (gehienez 8 IK eta betetzen bada [4]=14 dagokio 0 IK)
[6]	Ikerkuntzan sakontzeko GUZTIRAKOA [4]+[5] (gehienez 14 IK)
GESTIO GEHIAGARRIA	
[7.1]	G1 PIlren batzarre eta enpresa-batzordeko kidea
[7.2]	G2 Unibertsitate institutuko zuzendaria izatea
[7.8]	G8 Practicuma eta kanpoko derrigorrezko praktikak
[7]	Gestio gehigarria [7.1] + [7.2] +... +[7.8] (gehienez 4 IK) GUZT.
BESTELAKO IRAKASKUNTZA-JARDUERAK	
[8.1]	E1 Ikastegiko Kalitatea Bermatzeko Batzardea
[8.2]	E2-Campus Birtualaren koordinatzailea
[8.12]	E12-Genero ikuspegia unibertsitateko irakaskuntzan txertatzeko eskuliburuak (ISBN edo ISSNdunak) argitaratzea
[8]	Bestelako irakaskuntza-jardueren GUZTIRAKOA [8.1]+[8.2]+...+[8.12] (gehienez 4 IK)
JAP KREDITUAK GUZTIRA (IRAKASKUNTZA ERREGULARREKOAK IZAN EZIK) GEHIENEOAK APLIKATUTA	
[9]	Gestioan eta irakaskuntzan sakontzearen guztirakoa [7]+[8]
[10]	Ikerketako bestelako intentsifikazio-jarduerak gehi intentsifikazioa kudeaketan eta irakaskuntzan, [4] = 14 bada, gehienez 2 IK; [4] = 8 bada, gehienez 4, [4] = 4 bada, gehienez 6; [4]=0 bada, gehienez 0
[11]	Murrizketa kargu/lizentzia/bajagatik gehi irakaskuntzako, kudeaketako eta ikerketako bestelako intentsifikazio-jarduerak guztira M + [10] (gehienez IAGd-eko 3/4)
EMAN BEHAR DEN IRAKASKUNTZA ERREGULARRA JAPeko EMAITZAK KONTUAN HARTUTA	
[12]	Gutxienez {64-[1]-[2]-[3]-[4]-[11], IAGb}
GAURen GRABATURIKO IRAKASKUNTZA ERREGULARRA	
[13.1]	Erreferentziako ikasturteko irakaskuntza erregularra (graduoko irakaskuntza, masterra, Practicuma)
[13.2]	Aurreko bi ikasturteetako irakaskuntza erregularra (doktorego-tesiak, MAL, KAP, GAL, Borondatezko kanpoko praktikak)
[13]	GAURen grabatutako benetako irakaskuntza erregularra GUZTIRA
JARDUERA AKADEMIKOEN GUZTIRAKOA	
[14]	Eman behar den irakaskuntza erregularra JAPeko emaitzak kontuan hartuta [1] + [2] + [3] + [4] + [11] + [12]
[15]	GAURen grabaturiko irakaskuntza erregularra kontuan hartuta [1] + [2] + [3] + [4] + [11] + [13]

6. IRAKASLEEN JARDUERAK BISTARATZEKO PANTAILAK

6.2 PRESTAKUNTZA BIDEAN DAUDEN LAN KONTRATUDUN IRAKASLEEN PANTAILA

IRAKASLEAREN DATU PERTSONALAK	
Kredituak egozteko urtea	
Deiturak eta izena	
NANA	
kategoria	
Irakaskuntza-gaitasun gordinaren (IAGd)	
Kargu akademikoaren murrizpena lizentzia/baja (R)	
Irakaskuntza-gaitasun netoa (IAGb)	
Saila	
Ikastegia	

JARDUEREN BANAKETA JARDUN AKADEMIKORAKO PLANAREN (JAP) ARABERA	
OINARRIZKO GESTIOA	
[1]	Oinarrizko gestioa
PRESTAKUNTZA ETA EGUNERATZEA	
[2]	Prestakuntza eta eguneratzea
OINARRIZKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA	
[3]	Oinarrizko irakaskuntza eta ikerkuntza
IKERKETA GEHIAGARRIA	
[4]	Doktoregoa, Seiurtekoa eta Irakasle-lanpostua lortzeko beharrezkoa den akreditazioaren aitortze-eskaera
[5.1]	IKER1 JCR, SCOPUS argitalpenak
[5.2]	IKER2 Ikerkuntzarako proiektu, talde eta kontratuak...
...	
[5.5]	IKER5 Tesia inskribatu izana edo akreditazio konpromiso bat indarrean edukitzea
[5]	Bestelako ikerketa jarduen guztira [5.1]+[5.2]+...+[5.5] (gehienekoa 6 IK)
[6]	Ikerkuntzan sakontzeko GUZTIRAKOIA [4]+[5] (gehienez 10 IK)
GESTIO GEHIGARRIA	
[7.1]	G1 Pilren batzarre eta enpresa-batzordeko kidea
[7.2]	G2 Unibertsitate institutuko zuzendaria izatea
...	
[7.8]	G8Practicuma eta kanpoko derigorrezko praktikak
[7]	Gestio gehigarria [7.1] + [7.2] +... +[7.8] (gehienez 2 IK) GUZT.
BESTELAKO IRAKASKUNTZA-JARDUERAK	
[8.1]	E1 Ikastegiko Kalitatea Bermatzeko Batzordea
[8.2]	E12-Campus Birtualaren koordinatzailea
...	
[8.12]	E12-Genero ikuspegia unibertsitateko irakaskuntzan txertatzeko eskuliburuak (ISBN edo ISSNdunak) argitaratzea
[8]	Bestelako irakaskuntza-jardueren GUZTIRAKOIA [8.1]+[8.2]+...+[8.12] (gehienez 2 IK)
JAP KREDITUAK GUZTIRA (IRAKASKUNTZA ERREGULARREKOAK IZAN EZIK) GEHIENEKOAK APLIKATUTA	
[9]	Gestioan eta irakaskuntzan sakontzearen guztirakoa [7]+[8] (gehienez 4 IK)
[10]	Ikerketako bestelako intentsifikazio-jarduerak gehi intentsifikazioa kudeaketan eta irakaskuntzan [5] + [9] (gehienez 8 IK), [4] = 6 edo 8 bada, gehienez 4 IK; [4] = 0 bada, gehienez 8
[11]	Murrizketa karguagatik gehi irakaskuntzako, kudeaketako eta ikerketako bestelako intentsifikazio-jarduerak guztira M + [10] (gehienez IAGd-eko 3/4, arduraldi osoko karguetan izan ezik)
EMAN BEHAR DEN IRAKASKUNTZA ERREGULARRA JAPeko EMAITZAK KONTUAN HARTUTA	
[12]	Gutxienez [64-[1]-[2]-[3]-[4]-[11], IAGb] Kargu/lizentzia/bajarik gabeko irakasle eta ikertzaileentzat gutxienekoa 18 IK da
GAUREn GRABATURIKO IRAKASKUNTZA ERREGULARRA	
[13.1]	Erreferentziako ikasturteko irakaskuntza erregularra (gradu irakaskuntza, masterra, Practicuma)
[13.2]	Aurreko bi ikasturteetako irakaskuntza erregularra (doktorego-tesiak, MAL, KAP, GAL, Borondatezko kanpoko praktikak)
[13]	GAUREn grabatutako benetako irakaskuntza erregularra GUZTIRA
JARDUERA AKADEMIKOEN GUZTIRAKOIA	
[14]	Eman behar den irakaskuntza erregularra japeko emaitzak kontuan hartuta [1] + [2] + [3] + [4] + [11] + [12]
[15]	GAUREn grabaturiko irakaskuntza erregularra kontuan hartuta [1] + [2] + [3] + [4] + [11] + [13]

6. IRAKASLEEN JARDUERAK BISTARATZEKO PANTAILAK

6.3. SAILENTZAKO PANTAILAK

- Sail bakoitzak bere irakasle eta ikertzaileen zerrenda ikus dezake, bakoitzaren irakats ahalmenarekin eta irakats betebeharrekin. Honela agertuko dira :

The screenshot displays the 'Gestio akademikoko sistema' web interface. The main window title is 'Gestio akademikoko sistema'. The navigation menu includes 'Ekintza', 'Editatu', 'Kontsulta', 'Erregistroa', 'Eremua', 'Ventana', and 'Laguntza'. The browser address bar shows 'ordc0320-Sailaren eta ikastegiaren irakaskuntza-ahalmen eta -enkarguaren laburpena'.

The interface is divided into two main sections:

- Hautatzeko irizpideak:** This section contains several input fields: 'Kredituak egozteko ikasturtea' (set to 2014/15), 'Elebiduna', and 'Iraunkorra'. Below these are four empty input fields labeled 'Ikast.', 'Saila', 'Irakaslea', and 'Arla'.
- Sailaren eta ikastegiaren irakaskuntza-ahalmen eta -enkarguaren laburpena:** This section features a table with the following columns: 'NAN', 'Irakaslea', 'Ikast.', 'Arla', 'Eleb.', 'Ardural.', 'Kategorizaunk.', 'CDBMur.', 'kargu.CDN', 'EDR_PDA', 'IEE_Ben.', and 'IEE_Ben.Sail'. The table is currently empty. Below the table, there are input fields for 'Ikast.' and 'Arla', and a 'GUZT.' button. At the bottom of this section are buttons for 'Defendatutako tesiak', 'IEE zerrenda', 'Inprimatu PDFa', and 'Excel fitxategia'.

The Windows taskbar at the bottom shows the system tray with the date and time '13:09' and several open applications including 'Inicio', 'Explora...', 'Oracle Fusi...', 'RESUMEN_...', 'Microsof...', and 'Gestio akad...'.



IRAKASLEEN ETA IKERTZAILEEN PLANTILLAKO ZUZENDARITZAK

(IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDETZA)

2023ko urtarrila



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

